


Lehen hizkuntza (>=16 urte). Euskal Herria

Definizioa	
Euskal Herriko biztanleek hiru urte bete arte etxean jasotako hizkuntza edo hizkuntzak neurtzen ditu adierazle honek.	
Hedadura	
Euskal Herria	
Aldagaiak eta kategoriak	
<ul style="list-style-type: none"> • Eremu geografikoa: Euskal Herria, EAE, Nafarroa, Iparraldea, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherea/Zuberoa • Lehen hizkuntza: <ul style="list-style-type: none"> - Euskara - Biak: Euskara eta erdara * - Erdara* (bereizi gabe frantsesa/gaztelania eta beste bat): Euskara ez den beste edozein hizkuntza da, hala nola, gaztelania, frantsesa, arabiera, errumaniera, portugesa, e.a.. 	
Azpi-adierazleak (gurutzaketak)	
Lehen hizkuntza adinaren arabera	
Lehen hizkuntza sexuaren arabera	
Iturria	
Inkesta Soziolinguistikoa	
Iturriaren ezaugarriak	<p>Inkesta Soziolinguistikoa aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleek osatzen dute.</p> <p>Inkesta Soziolinguistikoak lau esparru hauen datuak neurtzen ditu: euskara-gaitasuna, euskararen transmisioa, euskararen erabilera eta euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.</p> <p>Inkesta Soziolinguistikoa estatistika ofiziala da, eta 020703 kodearekin dago jasota Euskal Estatistika Planean.</p> <p>Lehenengo hiru inkestak aurrez aurre egin ziren, baina 2006tik aurrera telefonoz egitea erabaki zen.</p>
Iturriaren arduraduna	Inkesta Soziolinguistikoa arduradunak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Gobernuko Euskarabidea eta Iparraldeko Euskaren Erakunde Publikoa dira.
Lehenengo datua eta maiztasuna	<p>Lehenengo datua: Lehen Inkesta Soziolinguistikoa 1991n egin zen.</p> <p>Maiztasuna: Bost urterik behin egiten da.</p>



Lagina eta akats-tartea	<p>Azken datu-bilketa 2016an egin da, telefono bidez eta galdetegi egituratua eta itxia erabiliz.</p> <p>Laginketa polietapikoa izan da, eta inkestak egiteko, etxebizitzan aukeraketa geruzatua egin da, gune soziolinguistikoaren eta udalerraren arabera.</p> <p>Lurralde bakoitzean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen arabera haztatu dira emaitzak, sexua, adina eta euskaldunen zein ez euskaldunen banaketa kontuan hartuta.</p> <p>2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoan 8.200 inkesta egin dira guztira: 4.200 EAEn, 2.000 iparraldean eta 2.000 Nafarroan.</p> <p>Euskal Herriko lagin osoaren akats-tartea \pm % 1,4koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q$=% 50. Konfiantza maila bererako erkidegoka laginketa-errorea honakoa da: EAEn \pm % 1,9koa, Nafarroan \pm % 2,9koa eta Iparraldean \pm % 2,3koa.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoko lagin osoaren akats-tartea \pm % 1,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q$=% 50. Konfiantza maila bererako lurraldekako laginketa-errorea honakoa da: Araban \pm % 4koa, Bizkaian \pm % 2,8koa eta Gipuzkoan \pm % 3koa.</p> <p>Nafarroako lagin osoaren akats-tartea \pm % 2,9koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q$=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: Eremu euskaldunean \pm % 4,3koa, Eremu mistoan \pm % 3,9koa eta Eremu ez euskaldunean \pm % 5,5koa.</p> <p>Iparraldeko lagin osoaren akats-tartea \pm % 2,3koa da % 95,5eko konfiantza mailarako eta $p=q$=% 50. Konfiantza maila bererako eremukako laginketa-errorea honakoa da: BAMen \pm % 3,7koa, Lapurdi (BAM gabe) \pm % 3,7koa eta Nafarroa Beherean-Zuberoan \pm % 4,5koa.</p>
Informazio osagarria	
Argitalpenak eta txostenak	<p>http://www.euskadi.eus/informazioa/ikerketa-soziolinguistikoak/web01-a2lingu/eu/</p> <p>http://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-sozio-linguistikoak</p>
Galdesorta(k)	<p>http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_291/opt_1/tipo_8/ti_Inkesta_sociolinguistikoa/temas.html</p>